

Erreferente

Bere burua erreferente nagusi modura identifikatzea, haurren eta nerabeen kontra detektatzen diren indarkeria-kasuak, eta garatu beharreko jarduketak eta hartu beharreko neurriak koordina ditzan.

Protokoloak

Langileei jakinaraztea eta zabaltzea edozein indarkeria-mota prebenitzeko eta indarkeria horietatik babesteko dauden protokoloak, betiere protokolo horiek entitatean, zentroan edo erakundearen aplikatzekoak badira.

Komunikazioa

Protokolo horiek betetzen direla ziurtatzea, eta, bereziki, haurren edo nerabeen kontrako indarkeria-egoeraren bat detektatzen bada, dagozkion komunikazioei ekitea.

Koordinazioa

Gizarte-zerbitzu eskudunek esku hartu behar duten kasuak koordinatzea eta, beharrezkoa dela baloratuz gero, kasuan kasuko agintariei informazioa ematea, kalterik egin gabe legeak aurreikusitako kasuetan komunikatzeko eginbeharrari.

Kontratazioak

Segurtasuna gainbegiratzea langileak, profesionalak zein boluntarioak, kontratatzen direnean, eta 2/2024 Legearen (Haur eta Nerabeena) 314. artikuluan aipatzen diren betekizunak bete eta egiaztatzen direla ziurtatzea.

BABES ORDEZKARIAREN FUNTZIOAK



Datuen babesa

Adingabeen datu pertsonalak era ez-zilegian tratatzea ekar dezaketen egoeretan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari berehala komunikatzea sustatzea.

Gatazken konponbidea

Langile eta adingabeen artean gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboen erabilera sustatzea.

Tratu onaren kultura

Adingabeentzat ahalik eta ongizaterik handiena ziurtatzeko neurriak sustatzea, baita haiei tratu ona ematearen kultura ere.

Prestakuntza

Prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta babesari buruzko prestakuntza-planak sustatzea. Lehentasuna emango zaio indarkeria-egoerak detektatzeko eta haiei erantzuteko trebetasunak eskuratzeko prestakuntzari.

